IGANDEAN ZARAUTZ'EN

"Basarri" goraltzeko euskaltzale pillo ederra bildu giñan

Bertso saio ederrak egin zituzten «Basarri», «Zepai», Alkain eta «Nekezabal»-ek. — Itzaldi egokiak ere entzun genitun «Aitzol», Barrena ta «Orixe»-k egindа. — Sari-eskeintza ta bazkaria.

ZARAUTZ'ERA

Adiskide onak izatea, beti onuragarri. Guri beintzat onuragarri izan zitzaigun igandean Egiabal'da «Jon»'eki degun adiskidetasuna. Beintzat, aren beibilleаn joan giñan, Olano'tar Txomin eta Añorga'tar Norberto lagun giñula.

ZARAUTZ'EN

Zarautz'en gera. Besarkada anaikor baten bitartez agurtu degu «Basarri» bertsolaria; baita ziotonik biotzekoenak eman ere berari opaltzen diogun egunean.

BATZOKIAN

Batzoki berria dute zarauztarrak. Abertzaletasuna zarauztar geienen biotzag jabetu da ta lengoa txikitxo zitzen. Ederra dute oraingoa ta guk poz [illegible] genun barren da kanpo. Atzealdean antzokia egin dute ta antzoki ori «Lizardi» izena eman diote, zarauztar olerkari bikaña izantzan Agirre'tar Joseba Mirena'ren oroiz. Ederki zarauztarrak, beren seme [illegible] goraltzen dakiten erriak [illegible] dira-ta.

Beintzat orretantxe agurtu genitun egun ura «Basarri»rekin batera igaro nai zuten zenbait euskaltzale ere: «Aitzol», Zubimendi, «Orixe», Zabaleta, Zinkunegi, e. a.

ANTZOKIAN

Ou iritxi geranerako bete-beterik dago Zarauztarrak are gogoz opaldu [illegible] egun ura «Basarri»ri; gogoz txalotu; gogoz beren begirapena agertu; [illegible] beren maitasuna eskeñi.

«Basarri», «Zepai», Alkain eta «Nekezabal»kin batera agertu dira antzokian «Aitzol», Zubimendi, Zabaleta, Zinkunegi...

«AITZOL»-EN ITZALDIA

Zarauztarrak agurtuaz asten du «Aitzol»ek bere itzaldia. Ez omen du, ez, Zarautz'en jaiaeko moren deirik bear, biotzean bertang omen dauzka la Zarautz eta Zarautz'ko abertzaleak. Ez orregatik eratu omen da gaurko jaia; Lenengoa bertsolaria goraltzeko, bertsolari gustien izenean «Basarri»ri omenaldia egiteko; bigarrena Zarautz'ko abertzale gustiak txalotzeko, ta bereziki Zinkunegi sendagille jauna, beteu izan dalako, orlarako indar bitartekorik onena.

Nagio zakarr gertatutakoaz mintza da ondoren. Erri gustiak jo omen dute abertzaletasunera, baño asko arkitaruna irtixieren ilsorian omen daude ikkuntza galdu dutelako, naiz eta bitartean askatasunari orruka aritu. Ez daigun guri ori gertatu—dio—, euskera jaso dezagun.

Bertsolariak ari da orain. Bertsolaria omen da euskal-ongaitzaren igalirik gozoena. Antziñan Euskalerrian Jaungoikoaren itza zabaltzeko bakarrik izaten omen ziran izlariak. Gañerako zetalbunde gustiak bertsolari bidez egiten ziraia din. Bertsolaria izan omen da beti Euskalerriaren abeslaria, bai bere poztaldietan, bai samintaldietan ere. Euskalerriaren edestia bertsolariak abestu izan dute ta zuek dirala ta omen dakigu Euskalerria ze izan dan. Garibai ere aitatzen du izlariak. Bi mende aurretiko bertsoak bildu omen zituen lan txalogarria egiñaz eta ittzale lau mende dirala ta ordu eskeroko bertsoak bilduak daudelarik orri nun agertzen dan Euskalerriaren sei mendeko edestia erriak erree ikasi dezaken eran bertsotan idatzia.

Euskalerriko antziñako oitura batzuk ere gogoratzen ditu izlariak, auen ar [illegible] gustiak ber[illegible] goraltzeko dira. Eta [illegible] — ila bezelaxe abestu oi zituzten euskaldunak etxe edo mendi erretzea aundiak, eriotz negargarriak eta gañerako berri garrantzidun gustiak. Orixe daukagu abertso berrietan ja[illegible] kurlista gudako jakingarri bere[illegible] ere. Eta gure aurrekoak oni edo [illegible] bear ez oldozten zuten jakiteko bertsolarietara joan, beseiakorik ez. Bertsolaria erritan sortua danez erriak berak bezela oldozten du ta. Ori izan da bertsolaria ta ori bera izan bear du biar ere. Bertsolariak asko dutelakoan abertzalearik abertzaldu bear du euskalduna, bertsolariak Aberri maitasunera ta Jainko maitasunera bildu euskotarra, bide batez euskera gaizka [illegible] jartzen dutelarik. Bertsolariak bear du izan—dio bukatzeko—Euskalerriaren semerik leyalena ta jatorrena.

Txalo saio entzun dittu «Aitzol»ek. Itzaldia alakoan izan da gañera. Gu gure motzitasunean ezin, ba, arek esandako gustia onera ekarri. Gure uste ona jarri degun eskero barkatuko aldigu irakurle maiteak.

BERTSOLARIAK

Oraindik txaloka ari da jendea. «Aitzol»entzat dira txalo oek. «Basarri» bertsotan asi da ordea ta bat ta jendea isildu ere. «Basarri», «Zepai», Alkain eta «Nekezabal» dira bertsolari. «Nekezabal»eri eraso diote gustiak; baño onek etorri ederra eduki ta ba-du guzientzat erantzuna. ¡A zer nolako bi bertsolari daukazuten zarauztarrok!

Oiek lenengo saioa egindakoan Zubimendi'k Donosti'ko Eusko Gaztediaren izenean agur bero bat egiten dio «Basarri»ri. Eta gero, Zubimendi'k berak gaiak emanda darraite bertsolariak. Guzientzat izantzuan txaloak. Bertsolariak indarrean «Angel»en ere ezin genun, antziñako oitura onari jarraituaz.

BAZKARIA

Batzokin genun bazkaria 55 bazkaltzar edo zenbatu giñun. Umore ederra ta bazkari onoa. Alkain'ek eman zien asiera bertsoai. Eta ondoren lau bertsolariak bertso batzuek abestu ondoren egun zan.

UDARREGI-SARI ESKEINTZA

«Aitzol»ek du itza ta beti bezin egokia ari da. Eskeñi dio «Basarri»ri Udarregi-Saria. Bai onek artu ta eskerrak emanaz bertso ederra bota ere. Zinkunegi'k andik eta emendik «Basarri»ri zorionak emanaz etorritako urrutidaiak irakurri zitun. Auek ziran: Donosti'tik, Berastegi'tik, «Lauaxeta», Inaki'k, Arrigua'ko Eusko Gastedia'k, Olano'tar Koldobika'k, Eusko Abesbatza'k eta Garin'ek; Ondarribi'tik, «Batarkaak»; Lazarte'tik, Arotzena'tar Andoni'k; Elgoibar'tik, «Iaakas», «Xapis», «Aberri» ta «Mirenixuak»; Elgeta'tik Kaperotxipi'k; Tolosa'tik, Lopez Mendizabal'ek, Labayen'ek eta Larrañaga'k; Azpeiti'tik U. B. B.'k eta Eusko Etxeak eta Usurbil'dik Gabon baskunak, zurra eskeñitako baskunak. Oneta zion azken urrutidatzak: «Gabon Baskunak zorionak «Basarri» bertsolari jatorrari Udarregi sortu zan erritik. Gora Zarautz. Gora Usurbil.» Ertandurenia ta Laborda jaunak urrutidatz dittu zioten eta Enbeita muxikar bertsolari gureak eskutitz bat bialdi zion Barrena'tar Polikarpa jaunaren bitartez. Ponk argitaratuko genun eskutitz orixe gurekin izan bagenu. Eskutitza Barrena jaunak berak irakurri zuan itzalditxo bat egin ondoren eta txalo asko izan ziran Enbeita, «Basarri» ta Barrena'rentzat.

«Aitzol»ek bere itzaldian «Orixe»k dagun lan ederra aitatu zualako eta gero «Basarri»k bertso eder batez ainbat eta geiago goraldu zualako «Orixe»k ere egin zuan itzalditxo bat. Ono egokia.

Ereta gabe bukatu zan ango jaialdia ta gero Amezti'tar Peli'ren txakolin ederrak txastatuaz aldi eder bat egin ondoren artu genun berriro etxerako bidea. Ez ordea gaur emendik egiten degun bezela «Basarri»ri berriro gure zorion bero-beroa eman gabe ta gañerako gustiai agur gozo bat egin gabe.

TXALDATXUR

Langille arazoak

Zumarraga - Zumaia

Urolakoentzat

Bazenduten ordua noizbait esnatzeko burnibide ortako langilleak. Entzun degunez Eusko Langilleaz batzeko asmotan zerate zuetako asko. Garai egokiagorik ez dezute izango; batu lenbailen [illegible] bat. Eta aurrera zuen asmo [illegible]. Euskaldun Kristauari dagokion elkarte obeagorik ez dezute arkituko; bertatik zaitu eraziko dittuzute zuen bidezko eskabideak ta eskubideak. Urrenatzen baminute norbait au ta ura ta bestea esanaz, erantzun zaiozue nor bere buruaren jabe zaretela, oñez ibiltzen badakizutela.

Ernai bada; elkartu Eusko Langilleaz itxartu burnibide ortako kristau euskaldun langilleak. Alderdi arazo gustietara kristau-euskeldun langilleak dauko eskubidie deritzaion alderdian egoteko, bere maillan da bidez jokatzeko.

Gora Langillien Batasuna ta Eusko Anaitasuna.

LAGUN BAT

Beldarrain sendagille jauna Donosti'n

Sudur, eztarri ta belarri gaitzetan bereziki ikasitako Beldarrain sendagille ospatsuak. Donosti'n «konsulta» edo d[illegible] jartzea erabaki du.

Beldarrain jaunak Valladolid'ko Ikastetxe Nagusian egin zituan bere ikaskizunak. Ez nola-nai gañera. Azkarra izaki, ba, ta azterketa bidez eta etsai askoren artean gallendurik, ikasle «interno»-takoa izan zan. Sendagille izena artutakoan Bilbo'ko Basurto Gaxoetxera joan zan an, ikusiz, len ikasitakoak geiagotzeko. Madrid'era joango zan urren, eta Doctor izena irabazi, egindako azterketa bidez.

Etzan ase orrekin Beldarrain jaunaren jakin-gogoa ta Berlin'era joan zan geiago ta geiago ikastera.

Berlin'dik itzulitakoan Ondarrabi'ko gaxo sendagille izantzan eta etzuan Ondarrabi alik eta Oiartzun'go alkate izendatu zuten arte utzi. Bi urte egin zituan Ondarribi'n.

Sendagille azkar bezin eusko seme zintzoa izaki ta Oiartzun'go alkatetzan egon dan bitartean Euskalerri alde zenbat eta zenbat lan egin duan esan bearrik ez daukagu, guziok dakizute-ta. Lan aundiak egin zituan Estatuto alde, lan aundiak gerogo Ayuntamentuen arazo artan eta ez gutxiago ugoldeak alako kalte ikaragarriak egin zituanean.

Eta Oiartzun'go alkatetzak orren esteratoko lan aundia eman arren etzion Beldarrain jaunak gaxo sendatzeari utzi. Dr. Castañedaren laguntzalle benetakoa izantzan aldi orretan ere.

Pozik artu degu guk beintzat Beldarrain jaunaren Donosti'n jartzeko erabakia ta guk bezela beste askok ere artuko dutelakoan, bere zuzenbidea emen jartzea egoki baño egokiagoa iruditu zaigu. Ona nun arkitu zenezateken Beldarrain jauna: Iztueta, 9, 3'gn. Urrutizkiñez itz egin nai lioteke-nak deitu dezala 1-51-20 zenbakira.

ANDEREKIKOAK

EKIN BATEZ OLDOZTEN

Gabon ingu[illegible]n EMAKUME ABERTZALE B[illegible]TZA'k ain zintzo ta biotz aundiz egin oi duan lan ongilleaz oldozten jarrita, JEL aldez onetaz lortzen dan ondore ederrag oldozten gelditu ta, bein baño geiagotan baita gelditu izan naiz tamalez, gure ekin guzia urtearen aldi orretako lanaz amaitzen dala ikusita.

Badirudi emakumearen ekiñak beretarikotzat ez duala gure artean ezer arkitzen. Badirudi beretzat notin beartsua beste urkorik ez dala. Euzkadi'ko Emakumak orok batez dagigun ekiñaz ari naiz; aitzen da. Aur jaio berrientzat janzki - otarratxoak; aundientzat jantzi ta janariak... eta besterik ez. An edo emen, batzuk edo besteak bakoitzka zertxobait baldin egiten ba'degu, bear guzia egin duanaren ataedenez gelditzen gera. Zeinda, auteskundeak diralata, gizonok igitzen ez gaituzten. Ontan, adoretsutzat eman gaituzte. Zerbait da. Baña au, noizikbeingoa da; ta Aberriaren bearizanak aundiak; era askotara ta eten gabe jardun arazi bear digutenak.

¿Ontarako gar edo kemenik eza? Ez det uste. Len aipa ditudan lanetan emakume eusko-abertzaleak gogo ta gaitasun bereziak azaldu ditugu; bearreko kemen bizia ere bai. Nere ustez, irakas-bururik eza. Emakume bazkunai aginpidez araziko digun irakas-buru baten bearra. Onlako batek arazita euskotar emakumak, egiten degun baño aberri-aldezko lan asko ta asko egin dezakegulakotzat n[illegible]go.

Gaurko nere idazlan au, Zo[illegible] notza'ko «Jaungoiko-zale Baz[illegible]nak» bururatu dit. Bazkun gor[illegible]garri onek, urteoro, Bizkai'ko [illegible] txoren baten, «Kristiñau-ikas[illegible] Eguna» izendatzen duan jai [illegible] bat eraitzen du.

Bazkun onek berak izendat[illegible] du erria; bere gain eragunts[illegible] sariak; eta esan bearrik ez, b[illegible] erri baten, bein bestean, urte[illegible] uzkurtz eta euskera-aldez egi[illegible] duan lan onurakor eta emaitz[illegible] rren asi ereintzallea. Umetxo [illegible] tean egiña izaten da-ba. Urte[illegible] baña, erri bakar baten izan oi d[illegible] Jakiña. Bazkun onek bere gain bear du guzia, ta ez da gutxi egitea. Asko ere asko da, orretan jarraitu al izatea.

Baña geiago bear litzake, ta abertzaliok geiagora beartuak gaude. Lan ederrenetako au EMAKUME ABERTZALE BATZA'k aintzat artzen ba'leike, gure aberrian kistartasun eta euzkerak beste jeikirik izango luteke.

Ontarako garai ona datorkigu: garizuma. Berrogeikaro ontan erri bakoitzeko E. A. B.'k artu dezala umetxoai euzkeraz irakurri ta kistar-ikasbidea irakasteko lana; garizuman bakarrik, ez da lan aundi ta neketsua ta Pazkuetan, beste ainbeste erritan «KISTAR-IKASBIDE-EGUNA» ospatuko genduke.

Gure gain irakatsi ta antolatzeko lana; bakoitzak al duan bestean; baña lan au eragilleago izan dedintzat, guziok batez, eta aginpidez araziko digun bat. Ondo zuzenduta ta elkarren leian, lan geiago ta obeto egin oi da.

Nere aldetik, eta gipuzkoar bezela, Donosti'ko EMAKUME ABERTZALE BATZA'k du itza. Aurten [illegible]iteko oso garaiz gaude orain[illegible]. Eta laisterka amildegian bera dijuan gure Euzkera-aldez, ezin [illegible]nezake astirik galdu.

Oldoztu zein gauz ederra izango dan, aurtengo Pazkuetan Gipuzkoa'ko erririk geienetan KISTAR-IKASBIDE-EGUNA egin al izatea. Ekin besterik ez degu ba. Zuek bear deguna agindu. Bes[illegible]eok esana egin. Uste det elkar[illegible]tu al izateko, ARGIA ta «El Día», ta «Euzkadi» ere bai, zaba[illegible] izango dituguIa.

¿Bai al gera?

TENE

GURE BERTSOLARIAK

"BASARRI"

Donosti'ko Eusko Gastedia'ren aretoa. Bertsolarien sari banakera. Inguru erristako eusko semeak bertan dira. Zalantz aundia. Nor izango ote da txapeldun? Zein aterako ote da Euzkadi'ko bertsolarien buru?

Oturuntza amaitu da eta «Aitzol»ek du itza. Lenago baña ere dardar aundiagoak nabaitzen dira entzuleetan.

Jaunak; epai-maiak erabaki du lendabiziko saria Zarautz'ko «Basarri»rentzat dala.

Beriala ango txalo eta diadarrak. ¡Gora «Basarri»! ¡Gora Iñaki! ¡Gora Zarautz!

Orain dek neria nion nere buruari. Gure txapeldun onekin berriketatxo bat egin bear diat.

Baña, jaunak, nola utzi bioi bakarrik? ¡Ango soroak! ¡Ango basarkadak! Alako batean ere, orratiok, asi gera.

Esan dezagun lendabizi: «Basarri», ori da, Eizmendi'tar Iñaki, Errezil'en jaioa da 1914'gn. urteko Azaroa'ren 27'an; 21 urte ditu beraz. Orain Zarautz'en bizi da bere gurasoekin.

—¿Zer iruitu zaik Iñaki, gaurko jai aldia?

—Egia esan, ez det orrelakorik etagutu. Bertsolari jai ikuskarria. Aurrera jarraitu baño lenago esker zutxuetak eman zaizkiozu ARGIA'ren bidez Euskaltzaleak eta Eusko Gaztedia'ri. Ez da iñorren errua Kepa, baña tamala da eusko edesti mamitsu gayetan ez geyago sartzia. Egia da, oraindaño ez da benetako asmorik artu, baña urtero jarraitzen badute orrelako jai aldiak antolatzen, etorri bear dute bertsolariengandik egun zoriontsuak Euskadi'rentzat. Ikusiko dezu Gaitzen urterako jendea nola saiatuko dan eta zer gogor etorriko diran. Idazleak eta izlariak beren idazki eta etzaldietxoetan lan ederrak azaltzen dituzten bezela, guk ere alde batera gauza batzuek utzi ta mamira jo bear degu, mamira, Kepa.

—¿Ori askorentzat ez alda zaila izango Iñaki?

—Nere ustez ez. Gaur oso euskaldun gutxi dira gure Aberria'ren edestia ezagutzen ez dutenak; len baño geyago irakurtzen da eta gure gauzetako zaletasun aundiagoa jartzen da orain. Eta orrela dala gogo aundi batekin gustia irixitzen da, eta orretara juan biar degu, nere ustez.

—Asmo ederra Iñaki eta goguan eukitzeko gaya beste baterako.

¿Zer lan iruiti zaik gaur zallena?

—Irugarrena, ori da, doñuba eta oña epai-maiak azia. Zalla, nai beda, orren zalla ez da. Orain gertatzen zaiguna, gaztiak gera, esatekoan berriak, eta orrenbeste jende aurrian ikusi, nai aundi batian 8 edo 10 epailari eta antzokian, badakizu, beti alako zerbait. Oai oyek berak beste leku batian...

—¿Lasalaga Iñaki?

—Bai lagun ez dudikan ere.

—¿Gutxi-gora-bera Iñaki zenbat jai aldietan izanda aiz?

—Askotan Kepa, askotan; ezin zenbatu nezake. Gipuzkoa'n egin diran eusko jai geyenetan izandu naiz eta bai Bizkaya'ko uri askotan ere. Bizkaitarrakin ibili nintzan lau egunean, Gipuzkoa'n izenean, Euzkadi osoari bira eman ziotenean. Oyek egunak eta ura anaitasuna; baña geyena nere biotza poztu zuan lekua Kanbo deritzaion erri polit artan izan zan. Bertsotan jarraitu bear nubela eta erriko enparantza zabala jendez josia zeguen. Asi eta bertala baituradin ango anayei abertzale gayetan biotza ikusa nbolela, bada an egin [illegible] txaloak ez dira aztuterko [illegible]. Arrenbeste nai alkartuta eta [illegible] bertzekiu! Ura edertasuna; anitzgun euskoendia.

—¿Orduan gaurko jai onen ondoren...?

—Neretzat aundiena len esandako Kanbo'koa izandu da eta ez zait sekulan aztuko.

—Lenagoko bersolarietan ire ustez zein izandu dek onena?

—Nere ustez eta juaten bagera abertzale gayak iñiltzen zituzten bersolarietara, ez da Enbeita'tar Kepa bezelakorik. ¡Enbeita aundia da! Beste gayetan ezagutu deanik onena Gaztelu'tar Bautista.

—¿Eta gaur Foxpolin Antzokian izandu diancian?

—Ezin nezake iñor berezi; danak dira bersolari onak. Orain bai, oyetatik badago jarraitzen badu orain arte bezela, etorkizun aundikoa izango dana eta ori bere adiskide on «Zepai» da.

—Lenago edo orain egiten dituk bertso ederraguak?

—Garai batian ere bertso ederrak egiten zituzten, baña uste det gaur orratiok obeagoak azaltzen dirala.

—¿Eta ori zergatik dala deriztiok?

—Euskera garbian askok iza egiten dutelako, geyago irakurri eta gañera urteak igaro ala ekintza (practica) geyago izaten dalako.

—Gure aldunak ere ekertuak zeuztek irekin Iñaki, ez da ala?

—Bai, eta Zarautz'en gertatua esango dizut: gure aldunak etortzekuak ziran eta neri bertso batzuek botatzeko agindu ziaten ongi etorria egiñaz. «Alcibars»'eri ere tritxi zitzaio bere txanda eta bertso auxe bota nion:

Alzazu «Alcibar» esango dizut
zeroi aurrenik autres
Madrid aldera juandakoan
etzaitez egon bildurrez
¿A latetxe zabal aretan
esan ezazu mesedez
guri ez digula ajolik
Goikoetxea o Gil Robles
aitor bezala estaldiderik
emango dizten edo ez.

Bota baituan, bota nuan; ango diadarrak. Beriala etortzen zait «Alcibar» jauna eta aldian bere txiskar gañian ibilli nindun.

—¿Bersoetan aritzera nunbaitera juan eta zerbait gertatu aizaik?

—Bai eta Donosti'ko Kursaal Antzokian. Ordun aña bildur ez det iñoz sekulan igaroko deanik. Santo Tomás egun batez Zarautz'ko Nazte Borrate ekarri zuten antzezlatzera eta jakiña, ayekin batian ni ere bai, tartian tartian bertso batzuek botatzeko asmuan.

Sartu gera antzokian eta ederki, baña orra nun jai aldia asteko garayan bururatu zitzaidan antzezlokitik (escenario)'tik begiratzea zer nolako jendea zegoen; ¡Ango sonbrallu, mantilla eta jende aundiki eta dotoreak! Ura ikusi eta nere buruari esan: nik emen asko moduko bertsoak botatzen baditut, zer gertatuko ote da? Jende aundiki oyek abertzaleak ote dira? Emezortzi urte nituben orduban eta Antzoki batean, arrenbeste jenden aurrean eta abertzaleak ez ote ziran eta nik esaten nuana uleertuko ez ote zuen kezkarekin, bildurra jabetu zan nere korputzaz. ¡Ura ikara! ¿Zer egin bear ote det nik emen? ¡Jauna lagundu nazazu!

Asi da jai aldia. Lendabizi ezpatadantzariak ziran. Kortina altxa eta azaldu ziranean gure eusko ikurriñarekin, bertbiziki txalo eta gorak izandu ziran.

¡Gaizkatu nauk!; emen danak abertzaleak dituk; danak euskotarrak.

Bi bertso bota biar nitubela agindu ziaten. Lotsa aundia eta bildur aundiagoarekin azaldu naiz danen aurrea. Bota det bat eta ango isiltasuna eta ango txaloak. Bota bestian ondoren zortzi abestu arte ez ziraten utzi eta lenago nere barruban zegoen bildurra poz eta aisegiñ biurtu zan. Beriala an nituben jende aundi gustiak besarkatzen eta zorionak ematen. Euskeran alde jai aldi ederrak, Kepa; egun oyek ez dira nai eta ere aztutzen.

Galdera oyek egiten ordu bete igaro degu. ¡Iñaki, ator onera, dio batek! ¡Iñaki, urrutiskiñera! ¡Iñaki, argazkiak ateratzera! ¡Iñaki, olako aldunek juateko! eta alde batera eta bestera or dabilkite gure mutil gazte jator au.

—Utzi zaiotek orain bai eta bukatu dagun Iñaki, bestela ez ditek lagako bizkar gustia purrukatu arte.

Bota zaidak bertso bat ARGIA'ko irakurleentzat.

Olerkitxo bat moldatutzeko
ez daukat jaunak esiñik
euskeran alde jokatutzeko
nago ziñ on bat egiñik
ARGIA onen irakurleok